



HEGAZTIEN TAILERRA UIHP

URDAIBAIKO INGURUMEN
HEZKUNTZAKO PROIEKTUA

UIHP


Urdaibaiko ingurumen hezkuntzako proiektuko (UIHP) talde pedagogikoak txosten hau garatu du egonaldian zehar tailer hau garatuko duten irakasleentzat, baita ere tailer honen inguruan interesa duen edonorentzat.

Ikastetxe desberdinetako ikasleek zein irakasleek ingurumen hezkuntzako proiektuak garatzeaz gain hainbat tailer egiten dituzte astebeteko egonaldian. Tailer bakoitza bi orduko hiru saiotan dago antolaturik, lasaitasunez garatzeko moduan.

UIHPeko lan pedagogikoan ikuspegi eraikitzailea eta ebaluazioa dira oinarriak eta garrantzia handia hartzen dute, besteak beste, talde-lanak, berdinen arteko ikasketak, aniztasunaren trataerak eta irakasleak ikasleekiko duen jarrera hurbilak.

Ilido berean jarraituz, tailerraren garapenarekin irakasleek esku-hartze pedagogikoa aberasteko aukera dute.

Alde batetik, tailerretan ikastetxe desberdinetako ikasleak elkartzen dira errealitate eta kultura anitz bilduz eta horrek aniztasunaren trataeran sakontzea ahalbideratzen du. Bestetik, talde lanean aritzen dira eskulan bat eginez, eta aukera paregabea zabaltzen da berdinen arteko ikasketa bultzatu eta ikasketa esanguratsua garatzeko.



I.SARRERA


Hegaztiak edo txoriak (izen zientifikoa: Aves) animalia ornodun endotermiko talde bat dira. Lumak dituzte, hortzik gabeko baraila mokodunak, arrautza gogorak erruten dituzte, tasa metaboliko altua dute, lau-ganbaradun bihotza eta hezurdura sendo baina arina. Mundu osoan zehar bizi dira. Txikienak 5 zentimetroko *Mellisuga helenae* kolibria da eta handiena 2,75 metro neurtzen duen ostruka.

Hegazti guztiek dituzte hegalak, baina espezieen arabera garatuago edo atrofiatuago egon daitezke; hegalik gabeko bi hegazti ezagun bakarrak desagertutako moa eta elefante txoria ziren. Hegalak aurreko gorputz-adarretik eboluzionatu dute, hegaztiei hegan egiteko aukera emanez; ondoren, eboluzio gehiagoren ondorioz hegazti batzuek gaitasun hori galdu zuten, adibidez pingüinoek.

Espezie askok urteroko migrazioak egiten dituzte, distantzia handiak zeharkatuz. Hegaztiak animalia sozialak dira, dei, kolore eta abestiekin komunikatzen dira, eta gertakari sozialetan hartzen dute parte, adibidez hazkuntza kooperatiboa, ehiza, andanak sortu edo harrapariak zirikatu. Hegazti espezie gehienak sozialki monogamoak dira (ez nahastu monogamia genetikoarekin), normalki kumaldi baterako, batzuetan urte batzuetarako eta oso gutxitan bizitza osorako. Espezie gutxi batzuk poliginikoak dira (ar bat hainbat emerekin) eta oso gutxi poliandrikoak (eme bat ar batzuekin). Hegaztiak kumaldiak egiten dituzte arrautzak jarrita, ugalketa sexual bidez ongarritzen direnak. Hegazti askok habiak sortzen dituzte arrautzak erruteko, eta bi gurasoetako batek edo biek mantentzen dituzte. Hegazti gehienek gurasoen arreta izaten dute arrautzatik atera eta gero.

Hegazti espezie asko ekonomikoki garrantzitsuak dira gizakientzat. Etxe abereak edo ez, arrautza, haragi eta luma iturri dira. Txori abeslariak eta loroak, baina ez bakarrik, konpainia-animalia izan daitezke.

Gizakien jarduerak 120-130 espezie inguru desagerrarazi ditu XVII. mendetik hona, eta beste ehunka batzuk aurretik. Giza-jarduerak 1.200 hegazti espezie inguru arriskuan jarri ditu, nahiz eta badauden proiektuak horietako batzuk babesteko




2. HELBURUAK

Tailerren helburu orokorrak

- Talde jardueretan aktiboki parte hartzea, norberari dagozkion ardurak erantzukizunez hartuz, norbere eta besteen ekarpenak balioetsiz eta besteekiko harreman orekatu eta eraikitzaileak sortuz, lankidetzan, errespetuan eta elkartasunean oinarritutako bizikidetzara eraikitzeko.
- Norbere elaborazio artistikoetan konfidantza garatzea, egitearekin gozatuz eta norbere garapen pertsonalari zein taldekoari egiten dizkion ekarpenak baloratuz, norbere autoestima sendotzeko eta ideia zein sentimenduen adierazpen gaitasuna hobetzeko.
- Ondasun kultural eta artistiko ezberdinak ezagutzea eta balioestea, espresiorako baliabideak modu estetiko eta sortzaile batean pertsonalizatuz, artea eta kultura ideia, sentimendu eta esperientzien adierazpen gisa ulertzeko eta baloratzeko eta ondarearen kontserbazioan eta berrikuntzan parte hartzeko.

Hegaztien tailerraren helburua

- Haurrak ingurumen-arazoez jabetzea eta haiekiko jakitun izatea. Parte hartzeko eta ingurumena hobetzeko interesa sustatzea. Hurbileko ingurunearen ezagutza zabaltzea
- Espezieak (kasu honetan txoriak) babestea, inguruko ekosistemen erabilera iraunkorra sustatzea, ingurumenaren kudeaketa iraunkorra egitea eta biodibertsitatearen galera geldiaraztea.



3. PLANGINTZA


Hegaztien tailerra adin desberdinetara zabaltzeko asmoz, eta produktuen elaborazioaren zailtasunak kontutan hartuz, plangintza desberdin bi proposatzen dira, bata Lehen Hezkuntzako (LH) ikasleekin garatzeko eta bestea Bigarren Hezkuntzako (DBH) ikasleekin aurrera eramateko.

“A” PLANGINTZA (LH)

1.saioa	<ol style="list-style-type: none">1. Gelaren antolaketa (taldekatze jolasa)2. Taldearen aurkezpena3. Asmoak4. Gelaren aurkezpena5. Arduradunen izendapena6. Sarrera7. Oinatzaren elaborazioa8. Tailerraren bilketa9. Balorazioa	2.saioa	<ol style="list-style-type: none">1. Gelaren antolaketa2. Txoritokien elaborazioa3. Jantokiaren elaborazioa4. Poltsen apainketa5. Tailerraren bilketa6. Tailerraren balorazioa	3.saioa	<ol style="list-style-type: none">1. Gelaren antolaketa2. Txorien gida3. Txorien beheaketa4. Aztarnaren desmoldatzea5. Poltsen prestaketa6. Tailerraren bilketa7. Tailerraren balorazioa
---------	---	---------	---	---------	--

“B” PLANGINTZA (DBH)

1.saioa	<ol style="list-style-type: none">1. Gelaren antolaketa (taldekatze jolasa)2. Taldearen aurkezpena3. Asmoak4. Gelaren aurkezpena5. Arduradunen izendapena6. Sarrera7. Oinatzaren elaborazioa8. Jantokiaren elaborazioa9. Tailerraren bilketa10. Balorazioa	2.saioa	<ol style="list-style-type: none">1. Gelaren antolaketa2. Txoritokien elaborazioa3. Poltsen apainketa4. Tailerraren bilketa5. Tailerraren balorazioa	3.saioa	<ol style="list-style-type: none">1. Gelaren antolaketa2. Txorien gida3. Txorien beheaketa4. Txoritokien apainketa5. Aztarnaren desmoldatzea6. Poltsen prestaketa7. Tailerraren bilketa8. Tailerraren balorazioa
---------	---	---------	--	---------	---



3.1 PLANGINTZAK SAIOZ SAIO

1.saioa (LH)


Lagunartean gustura egon eta zerbait eginez une atseginak bizi nahi dira. Horregatik, saio honetako lehenengo momentuak garrantzitsuak izango dira hasieratik giro atsegina sortzeko eta kideen arteko harremanak finkatzen hasteko. Tailerra gauzatzeko taldekideen asmoak kontutan hartuz, taldekatze orekatuak egitea eta arduren banaketa egitea ezinbestekoak izango dira.

Inguruko ekosistemei hurbiltzeko, saio honetan, egunerokotasunean ikusten ditugun txorien aztarna bat lortuko dugu eta txoritoki eta jantoki bana sortzen hasiko gara.

Elkarlana bultzatzeko asmotan bosnaka taldekatuko dira, norberaren helburuak eta interesak taldeko gainerako kideekin uztartuz; izan ere, talde produktiotik sortzen da bakoitzaren txori tokia.

Saioa momentu desberdinetan bereiziko da. Hona hemen saioaren antolaketa eta garapena:

	Momentuak:	Materiala:
40 min	<ol style="list-style-type: none">1. Gelaren antolaketa (taldekatze jolasa)2. Taldearen aurkezpena3. Asmoak4. Gelaren aurkezpena5. Arduradunen izendapena6. Sarrera	<ul style="list-style-type: none">-Igeltsua/Plaster-Kartulina-Ura-Bi klip-Prezipitatu ontzia-Paperezko edalontziak-Koilara bat-Depresore palo bat
45 min	<ol style="list-style-type: none">7. Oinatzaren elaborazioa	
35 min	<ol style="list-style-type: none">8. Tailerraren garbiketa eta bilketa9. Balorazioa	




1.GELAREN ANTOLAKETA

Tailerra hasi baino lehen gela antolatuta izatea garrantzitsua da ikasleak sartzen direnean lasaitasunez leku bat hartzen joateko eta gelaren egiturari kokatzen joateko.

Taldean 12-15 ikasle izango direla kontutan hartuz, lau/bosteko 3 mahai talde prestatuko dira (ikus irudia).

Ikastetxe desberdinetako ikasleen artean harreman berriak bultzatzeko, ikasleak nahastu egingo dira, talde bakoitzean ikastetxe desberdinetako ikasleak elkartzuz. Horretarako lagungarri gisa ondoko jolasa proposatzen da:



Materiala:

Katetoen kartak

Tokatu zaion hegaztiaren familiakoak elkartu beharko dira, horrela taldeak sortuz. Bakoitza bere lekuan eserita dagoenean galdetu zer daukaten aman komunean, eta komentatu.

2.TALDEAREN AURKEZPENA

Taldean elkartu diren ikasleak ikastetxe desberdinetakoak dira, oraindik ez dira elkar ezagutzen. Tailerreko momentuak konpartitu eta elkarlanean arituko direnez, irakasle zein ikasle bakoitzaren aurkezpena egingo da elkar ezagutzen hasteko (nor den, zein ikastetxetako den, zein proiektutan dagoen...).

Bestalde, ikasleek dakarten motibazio maila neurtzeko, tailerra beraiek aukeratutakoa den edo gustukoa duten ala ez galdetuko da. Honek taldean sor daitekeen giroa aurreikusten lagunduko du.

3.ASMOAK

Ikasleek dituzten nahiak, interesak eta helburuak... jakitea lagungarri izango da irakasleon esku-hartzea egokitzeko.

Esandakoak jasotzeko, euskarri gisa, "Asmoen orria" erabiliko da.

Irakasle eta ikasleek tailer honetako asmoak elkarrekin adostuko dituzte.

Horretarako honako galderak erabili ahal dira: Zein asmo duzue tailer honetarako? Zeintzuk dira tailer honetarako dituzuen nahiak? Zer egitea espero duzue tailer honetan?...

Asmoen tresna honekin ikasleen hainbat itzaropen eta nahi agertuko dira, baina tailerren helburuak bermatzeko interesgarria da asmo hauek ziurtatzea: lagunak egitea, ondo pasatzea, tailerrari buruz ikastea...

"Asmoen orria" tailerren prozesua erregulatzeko eta azken balorazioa egiteko tresna izango da.

4.GELAREN AURKEZPENA

Tailerrean ikaslea autonomiaz mugitzeko erabiliko diren baliabide guztien aurkezpena egingo da. Tresnak, osagaiak, garbikariak, materiala... Non aurki ditzaketen erakusten da eta tailerraren garapena egoki joan dadin hauen ordenaren premia azaltzen zaie.

5.ARDURADUNEN IZENDAPENA

Tailerraren garapena era antolatu, lasai eta ordenatuan egiteko, arduradunak izendatuko dira.


Horretarako euskarri gisa, "arduradunen orria" erabiliko da.

Saio bakoitzerako mahai bakoitzeko arduradun bat izendatuko da, erantzukizuna denek hartu dezaten. Arduradun horrek egun bakoitzean bere mahaiak beharko lituzkeen osagai eta tresna guztiak armairutik mahaira ekarri, harrikoa egin, sikatu, ondoren gorde eta mahaia garbituko du.

6.SARRERA

Kosmetika munduan apurka apurka ikasleak murgiltzen hasteko, girotzeko eta interesa pizteko kosmetikaren historia komentatuko da. Horretarako 3.orrialdean dagoen "Sarrera" erabiliko da.

Ondoren asteko plangintza komentatuko da gainera : zer egingo den, zein produktu elaboratuko den...





Hegaztien aztarna



I ⌚ 25-45 minutu

OSAGAIAK

-Plastea: 4 Koilarakada

-Iturriko ura: 50ml

MATERIALA

-Prezipitatu ontzi bat.

-Koilara bat (taldean elkarbanatzeko)

-Kartulina: bat

- bi klip

-Depresore bat

-Edalontzi bat

-Bandeja (taldean elkarbanatzeko)

NOLA EGIN:

1. Edalontzian plastea eta una bota eta biak ondo nahastu. depresorearen laguntzaz. (Ez sartu koilara uretan)
- 2.- Kartulina zatiarekin zirkulu bat egingo dugu, horretarako bi muturrak klipekin helduko ditugu.
- 3.- Kartulinarekin egindako zirkulua aztarnaren inguruan jarriko dugu (aztarna erdian), eta lortutako nahasketa isuriko dugu, aztarna guztiz estaliz. (bandejaren gainean)
- 5.- Amaitzeko kartulina kendu gabe pixka bat garbituko dugu eta guztiz lehortzen eta gogortzen utziko dugu.
- 6.- Erabilitako materiala (Mahaiak, koilarak..) ondo garbitu Edalontziak eta depresoreak zakarontzira bota
7. Eskuak garbitzeko kontuz, igeltsua da, zati handiak baditugu itsatsita komuna ataskatu egiten da.

OHARRAK:

Igeltsuak asko zikintzen du. Mahaira edo lurrera erortzen bada garbitu segituan, ez utzi zikatzen.



8.TAILERRAREN BILKETA

Guztion erantzukizuna izango da tailerra jasotzea, dena dagokion lekuan gordetzea, erabilitako tresnak garbitzea eta txukun uztea. Aulkiak batzea bakoitzaren ardura izango da. Saioaren hasieran izendatu diren mahai bakoitzeko arduradunen betebeharra izango da gela aurkitu dugun bezala gelditzea, garbi eta txukun.

9.BALORAZIOA

Saio bakoitza bukatzean tailerra baloratuko da. Momentu honi dagokion denbora eskaintzea garrantzitsua izango da. Saioaren balorazioa erabilgarria izango da beraien asmoak betetzen doazen, adostutako guztia aurrera doan, zaila egin zaien, gustatu zaien... ikusteko eta horrela, hurrengo saioetan irakasleon interbentzio pedagogikoa egokitzeko.



3.1 PLANGINTZAK SAIOZ SAIO

1.saioa (DBH)


Lagunartean gustura egon eta zerbait eginez une atseginak bizi nahi dira. Horregatik, saio honetako lehenengo momentuak garrantzitsuak izango dira hasieratik giro atsegina sortzeko eta kideen arteko harremanak finkatzen hasteko. Tailerra gauzatzeko taldekideen asmoak kontutan hartuz, taldekatze orekatuak egitea eta arduren banaketa egitea ezinbestekoak izango dira.

Inguruko ekosistemei hurbiltzeko, saio honetan, egunerokotasunean ikusten ditugun txorien aztarna bat lortuko dugu eta txoritoki eta jantoki bana sortzen hasiko gara.

Elkarlana bultzatzeko asmotan bosnaka taldekatuko dira, norberaren helburuak eta interesak taldeko gainerako kideekin uztartuz; izan ere, talde produktiotik sortzen da bakoitzaren txori toki.

Saioa momentu desberdinetan bereiziko da. Hona hemen saioaren antolaketa eta garapena:

	Momentuak:	Materiala:
40 min	<ol style="list-style-type: none">1. Gelaren antolaketa (taldekatze jolasa)2. Taldearen aurkezpena3. Asmoak4. Gelaren aurkezpena5. Arduradunen izendapena6. Sarrera	<ul style="list-style-type: none">-Igeltua/Plaster-Kartulina-Ura-Bi klip-Prezipitatu ontzia-Paperezko edalontziak-Koilara bat-Depresore palo bat
25 min	<ol style="list-style-type: none">7. Oinatzaren elaborazioa	
20 min	<ol style="list-style-type: none">8. Jantokiaren elaborazioa	<ul style="list-style-type: none">-Depresoreak-Kola zuria-Haria
35 min	<ol style="list-style-type: none">8. Tailerraren garbiketa eta bilketa9. Balorazioa	




1.GELAREN ANTOLAKETA

Tailerra hasi baino lehen gela antolatuta izatea garrantzitsua da ikasleak sartzen direnean lasaitasunez leku bat hartzen joateko eta gelaren egiturari kokatzen joateko.

Taldean 12-15 ikasle izango direla kontutan hartuz, lau/bosteko 3 mahai talde prestatuko dira (ikus irudia).

Ikastetxe desberdinetako ikasleen artean harreman berriak bultzatzeko, ikasleak nahastu egingo dira, talde bakoitzean ikastetxe desberdinetako ikasleak elkartzeko. Horretarako lagungarri gisa ondoko jolasa proposatzen da:



Materiala:

Katetoen kartak

Tokatu zaion hegaztiaren familiakoak elkartu beharko dira, horrela taldeak sortuz. Bakoitza bere lekuan eserita dagoenean galdetu zer daukaten aman komunean, eta komentatu.

2.TALDEAREN AURKEZPENA

Taldean elkartu diren ikasleak ikastetxe desberdinetakoak dira, oraindik ez dira elkar ezagutzen. Tailerreko momentuak konpartitu eta elkarlanean arituko direnez, irakasle zein ikasle bakoitzaren aurkezpena egingo da elkar ezagutzen hasteko (nor den, zein ikastetxetako den, zein proiektutan dagoen...).

Bestalde, ikasleek dakarten motibazio maila neurtzeko, tailerra beraiek aukeratutakoa den edo gustukoa duten ala ez galdetuko da. Honek taldean sor daitekeen giroa aurreikusten lagunduko du.

3.ASMOAK

Ikasleek dituzten nahiak, interesak eta helburuak... jakitea lagungarri izango da irakasleon esku-hartzea egokitzeko.

Esandakoak jasotzeko, euskarri gisa, "Asmoen orria" erabiliko da.

Irakasle eta ikasleek tailer honetako asmoak elkarrekin adostuko dituzte.

Horretarako honako galderak erabili ahal dira: Zein asmo duzue tailer honetarako? Zeintzuk dira tailer honetarako dituzuen nahiak? Zer egitea espero duzue tailer honetan?...

Asmoen tresna honekin ikasleen hainbat itzaropen eta nahi agertuko dira, baina tailerren helburuak bermatzeko interesgarria da asmo hauek ziurtatzea: lagunak egitea, ondo pasatzea, tailerrari buruz ikastea...

"Asmoen orria" tailerren prozesua erregulatzeko eta azken balorazioa egiteko tresna izango da.

4.GELAREN AURKEZPENA

Tailerrean ikaslea autonomiaz mugitzeko erabiliko diren baliabide guztien aurkezpena egingo da. Tresnak, osagaiak, garbikariak, materiala... Non aurki ditzaketen erakusten da eta tailerraren garapena egoki joan dadin hauen ordenaren premia azaltzen zaie.

5.ARDURADUNEN IZENDAPENA

Tailerraren garapena era antolatu, lasai eta ordenatuan egiteko, arduradunak izendatuko dira.


Horretarako euskarri gisa, "arduradunen orria" erabiliko da.

Saio bakoitzerako mahai bakoitzeko arduradun bat izendatuko da, erantzukizuna denek hartu dezaten. Arduradun horrek egun bakoitzean bere mahaiak beharko lituzkeen osagai eta tresna guztiak armairutik mahaira ekarri, harrikoa egin, sikatu, ondoren gorde eta mahaia garbituko du.

6.SARRERA



Kosmetika munduan apurka apurka ikasleak murgiltzen hasteko, girotzeko eta interesa pizteko kosmetikaren historia komentatuko da. Horretarako 3.orrialdean dagoen "Sarrera" erabiliko da.

Ondoren asteko plangintza komentatuko da gainera : zer egingo den, zein produktu elaboratuko den...





Hegaztien aztarna

 I  25-45 minutu

OSAGAIAK

-Plastea: 4 Koilarakada

-Iturriko ura: 50ml

MATERIALA

-Prezipitatu ontzi bat.

-Koilara bat (taldean elkarbanatzeko)

-Kartulina: bat

- bi klip

-Depresore bat

-Edalontzi bat

-Bandeja (taldean elkarbanatzeko)

NOLA EGIN:

1. Edalontzian plastea eta una bota eta biak ondo nahastu. depresorearen laguntzaz. (Ez sartu koilara uretan)
- 2.- Kartulina zatiarekin zirkulu bat egingo dugu, horretarako bi muturrak klipekin helduko ditugu.
- 3.- Kartulinarekin egindako zirkulua aztarnaren inguruan jarriko dugu (aztarna erdian), eta lortutako nahasketa isuriko dugu, aztarna guztiz estaliz. (bandejaren gainean)
- 5.- Amaitzeko kartulina kendu gabe pixka bat garbituko dugu eta guztiz lehortzen eta gogortzen utziko dugu.
- 6.- Erabilitako materiala (Mahaiak, koilarak..) ondo garbitu Edalontziak eta depresoreak zakarontzira bota
7. Eskuak garbitzeko kontuz, igeltsua da, zati handiak baditugu itsatsita komuna ataskatu egiten da.

OHARRAK:

Igeltsuak asko zikintzen du. Mahaira edo lurrera erortzen bada garbitu segituan, ez utzi zikatzen.





Jantokia



I



20 minutu




MATERIALA

-Depresoreak: 23

-Kola zuria

-Tapoia

-Haria



NOLA EGIN:

*irakasleak ura lapikoan berotuko du (500ml gutxi gora behera talde bakoitzeko) eta koko olioia "baño marian" jarriko du.

1- Leheniketa behin 7 depresore jarriko ditugu paraleloan mahai gainean.

2.-Ondoren, kontrara bi depresore itsatsiko ditugu, bat punta bakoitzean.

3.-Pausu hau behin eta berriz errepikatuko dugu, azkenerako bi depresore utsiz.

4.- Amaitzeko, artile zati bi jarriko dizkiogu jantokia eskegi ahal izateko eta gainean azkenengo bi depresoreak itsastiko ditugu gainean.

OHARRAK:

Utzi ondo zikatzen.

Ez da kola asko erabili behar, puntatxo batekin nahikoa da, bestela denbora gehiago behar izango du zikatzeko.




3.1 PLANGINTZAK SAIOZ SAIO

2.saioa (LH)

Inguruko ekosistemei hurbiltzeko, saio honetan, txori toki bat egingo dugu. Aurrekoan aztarna egin genuenez, badakigu zein txori mota dauden gure inguruan eta hauei laguntzeko asmoz, bizileku bat eskainiko diegu.

Saioa momentu desberdinetan bereiziko da. Hona hemen saioaren antolaketa eta garapena:

	Momentuak:	Materiala:
10 min	1. Gelaren antolaketa	
60 min	2. Txoritokien elaborazioa	-Egurrezko piezak -Kola zuria -Tapoiak -Zinta beltza -Goma
30 min	3. Poltsen apainketa	-Poltsak -Errotulkiak -Kola barra -Artaziak
20 min	4. Tailerraren bilketa 5. Tailerraren balorazioa	





Txoritokiak




2



60 minutu

MATERIALA

- Kola zuria
- Egurrezko piezak (A-G) (x2)
- Kola botatzeko tapoia
- Goma (x2)
- Zinta beltza 3-4 cm



NOLA EGIN:


Txoritokiek eraikuntza egiteko ondoan daukagun pertsonarekin binaka arituko gara.

1- pieza desberdinak itsasten hasiko gara. Horretarako batek atzamarrarekin kola emango dio piezari eta besteak piezak eutsiko ditu.

2- Piezak jartzeko ordenari dagokionez, beheko piezari itsatsiko dizkiogu aldeetakoak eta ondoren goikoa jarriko dugu, atea azkenerako utziz. Pieza bati lekeda ematen diogunean, gutxi gorabehera 2-3 minutu inguru itzarongo ditugu hurrengoa jarri arte, horrela kola lehortuta dagoela ziurtatzeko eta estruktura sendoa daukala aprobetxatuz pieza berriak itsasteko.

3- Amaitzeko, barruko aldetik zinta zati bat jarrita "F" eta "G" piezak lotuko ditugu giltzarria(bisagra) sortuz.

4-Prozesua bi aldiz errepikatuko da, bakoitzak bere txoritokia izateko.



POLTSEN APAINKETA


Astean zehar egingo ditugun gauza guztiak era,man ahal izateko poltsa bat apainduko dugu. Poltsa guztiz pertsonala izango da, baina tailerraren parte da, hau da, apaindu behar da. Ez da ikaslea gidatuko poltsaren apainketan baina animatuko zaio pertsonalizatzen. Txantiloia itsatsi eta margotu dezake, edo bere izena eta ikastetxea bere gustura libreki jarri.

TAILERRAREN BILKETA

Guztion erantzukizuna izango da tailerra jasotzea, dena dagokion lekuan gordetzea, erabilitako tresnak garbitzea eta txukun uztea. Aulkiak batzea bakoitzaren ardura izango da .Saioaren hasieran izendatu diren mahai bakoitzeko arduradunen betebeharra izango da gela aurkitu dugun bezala gelditzea, garbi eta txukun.

BALORAZIOA

Saio bakoitza bukatzean tailerra baloratuko da. Momentu honi dagokion denbora eskaintzea garrantzitsua izango da. Saioaren balorazioa erabilgarria izango da beraien asmoak betetzen doazen, adostutakoa aurrera doan, zaila egin zaien, gustatu zaien... ikusteko eta horrela, hurrengo saioetan irakasleon interbentzio pedagogikoa egokitzeko.




3.1 PLANGINTZAK SAIOZ SAIO

2.saioa (DBH)

Inguruko ekosistemei hurbiltzeko, saio honetan, txori toki bat eta jantokia egingo dugu. Aurrekoan aztarna egin genuenez, badakigu zein txori mota dauden gure inguruan eta hauei laguntzeko asmoz, bizileku bat eskainiko diegu.

Saioa momentu desberdinetan bereiziko da. Hona hemen saioaren antolaketa eta garapena:

	Momentuak:	Materiala:
10 min	1. Gelaren antolaketa	-Egurrezko piezak -Kola zuria
40 min	2. Txoritokien elaborazioa	-Tapoiak -Zinta beltza -Goma
20 min	3. Jantokiaren elaborazioa	-Depresoreak -Haria -Kola -Tapoia
30 min	3. Poltsen apainketa	-Poltsak -Errotulkiak -Kola barra -Artaziak
20 min	4. Tailerraren bilketa 5. Tailerraren balorazioa	





Txoritokiak




2



40 minutu

MATERIALA

- Kola zuria
- Egurrezko piezak (A-G) (x2)
- Kola botatzeko tapoia
- Goma (x2)
- Zinta beltza 3-4 cm



NOLA EGIN:


Txoritokiek eraikuntza egiteko ondoan daukagun pertsonarekin binaka arituko gara.

1- pieza desberdinak itsasten hasiko gara. Horretarako batek atzamarrarekin kola emango dio piezari eta besteak piezak eutsiko ditu.

2- Piezak jartzeko ordenari dagokionez, beheko piezari itsatsiko dizkiogu aldeetakoak eta ondoren goikoa jarriko dugu, atea azkenerako utziz. Pieza bati lekeda ematen diogunean, gutxi gorabehera 2-3 minutu inguru itzarongo ditugu hurrengoa jarri arte, horrela kola lehortuta dagoela ziurtatzeko eta estruktura sendoa daukala aprobetxatuz pieza berriak itsasteko.

3- Amaitzeko, barruko aldetik zinta zati bat jarrita "F" eta "G" piezak lotuko ditugu giltzarria(bisagra) sortuz.

4-Prozesua bi aldiz errepikatuko da, bakoitzak bere txoritokia izateko.





Jantokia



I



20 minutu




MATERIALA

-Depresoreak: 23

-Kola zuria

-Tapoia

-Haria



NOLA EGIN:

*irakasleak ura lapikoan berotuko du (500ml gutxi gora behera talde bakoitzeko) eta koko olioia "baño marian" jarriko du.

1- Leheniketa behin 7 depresore jarriko ditugu paraleloan mahai gainean.

2.-Ondoren, kontrara bi depresore itsatsiko ditugu, bat punta bakoitzean.

3.-Pausu hau behin eta berriz errepikatuko dugu, azkenerako bi depresore utsiz.

4.- Amaitzeko, artile zati bi jarriko dizkiogu jantokia eskegi ahal izateko eta gainean azkenengo bi depresoreak itsastiko ditugu gainean.

OHARRAK:

Utzi ondo zikatzen.

Ez da kola asko erabili behar, puntatxo batekin nahikoa da, bestela denbora gehiago behar izango du zikatzeko.



POLTSEN APAINKETA


Astean zehar egingo ditugun gauza guztiak era,man ahal izateko poltsa bat apainduko dugu. Poltsa guztiz pertsonala izango da, baina tailerraren parte da, hau da, apaindu behar da. Ez da ikaslea gidatuko poltsaren apainketan baina animatuko zaio pertsonalizatzen. Txantiloia itsatsi eta margotu dezake, edo bere izena eta ikastetxea bere gustura libreki jarri.

TAILERRAREN BILKETA

Guztion erantzukizuna izango da tailerra jasotzea, dena dagokion lekuan gordetzea, erabilitako tresnak garbitzea eta txukun uztea. Aulkiak batzea bakoitzaren ardura izango da .Saioaren hasieran izendatu diren mahai bakoitzeko arduradunen betebeharra izango da gela aurkitu dugun bezala gelditzea, garbi eta txukun.

BALORAZIOA

Saio bakoitza bukatzean tailerra baloratuko da. Momentu honi dagokion denbora eskaintzea garrantzitsua izango da. Saioaren balorazioa erabilgarria izango da beraien asmoak betetzen doazen, adostutakoa aurrera doan, zaila egin zaien, gustatu zaien... ikusteko eta horrela, hurrengo saioetan irakasleon interbentzio pedagogikoa egokitzeko.



3.1 PLANGINTZAK SAIOZ SAIO

“A” PLANGINTZA (LH)

3.saioa

Saio honetan laguntzen ari garen txorien izenak eta berezitasunak ikasteko edo ezagutzeko aukera izango dugu. Horretarako ekintza ezberdinak izango ditugu.

	Momentuak:	Materiala:
5 min	1. Gelaren antolaketa	
10 min	2. Bideoa ikusi eta komentatu	
35min	3. Gida landu	-Gida -Plasti decor
10 min	4. Txorien behaketa	-Katalejoak -Janaria
35min	5. Aztarnaren desmoldatzea 6. Poltsen prestaketa	
15min	7. Tailerraren bilketa	
10min	8. Tailerraren balorazioa	

BIDEOA IKUSI ETA KOMENTATU

Bideoan amilotx urdin bat ikusten da bere kabia Otik sortzen. Arraultzak jartzen dituen momentutik txitak hegaz irtetzen diren momenturarte.

GIDA LANDU

IGida originala proiektatzen da eta txori bakoitzaren berezitasunak komentatzen dira, non bizi diren, koloreak... eta honen arabera beraien gida bete beharko dute.

TXORIEN BEHAKETA

-Saio horretan arduradunak diren ikasleak laguntzailearekin jantokiak betetzera joango dira, eta bitartean beste gustiak gida eta katalejoekin gure jantokira joango dira txoriak identifikatzera. ADI! ezin da zaratarik atera, bestela txoriak beldurtu egiten dira eta ezinezkoa izango da ezer ikustea.

AZTARNEN DESMOLDATZEA

ikasleek kontu handiz kartulina eta klip-ak kenduko dituzte. Irakasleak berriz, kutteraren laguntzaz, desmoldatuko ditu.

IAztarna alde batetik eta moldea bestetik daukagunean, bertokoa ondo garbitu (urik gabe) eta bere lekuan gorde.

POLTSEN PRESTAKETA

Ikasle bakoitzak, bai gaurko eta baita aurreko egunetako produktuak poltsan sartuko ditu azken egunean etxera eramateko prest gera daitezen. Zelo pixka batekin poltsak itxi.

EZ ERAMAN POLTSAK, AZKEN EGUNEAN BEGIRALEEK BANATUKO DITUZTE.

TAILERRAREN BILKETA ETA BALORAZIOA

Guztion erantzukizuna izango da tailerra jasotzea, dena dagokion lekuan gordetzea, erabilitako tresnak garbitzea eta txukun uztea. Aulkiak batzea bakoitzaren ardura izango da .Saioaren hasieran izendatu diren mahai bakoitzeko arduradunen betebeharra izango da gela aurkitu dugun bezala gelditzea, garbi eta txukun.

Hiru saioak bukatzean tailerra baloratuko da. Momentu honi dagokion denbora eskaintzea garrantzitsua izango da, lehenengo saioan adostutako asmoak bete diren, adostutakoa aurrera eraman den, zaila egin zaien, gustatu zaien, nola sentitu diren... jakiteko, eta ondoren tailerrean beharrezkoak diren aldaketak egiteko eta irakasleon interbentzio pedagogikoa egokitzeko

3.1 PLANGINTZAK SAIOZ SAIO

“B” PLANGINTZA (DBH)

3.saioa

Saio honetan laguntzen ari garen txorien izenak eta berezitasunak ikasteko edo ezagutzeko aukera izango dugu. Horretarako ekintza ezberdinak izango ditugu.

	Momentuak:	Materiala:
5 min	1. Gelaren antolaketa	
10 min	2. Bideoa ikusi eta komentatu	
35min	3. Gida landu	-Gida -Plasti decor
10 min	4. Txorien behaketa	-Katalejoak -Janaria
35min	5. Aztarnaren desmoldatzea 6. Txoritokien apainketa 7. Poltsen prestaketa	-Tenperak -Ura -Pintzelak -Papera
15min	8. Tailerraren bilketa	
10min	9. Tailerraren balorazioa	

BIDEOA IKUSI ETA KOMENTATU

Bideoan amilotx urdin bat ikusten da bere kabia Otik sortzen. Arraultzak jartzen dituen momentutik txitak hegaz irtetzen diren momenturarte.

GIDA LANDU

IGida originala proiektatzen da eta txori bakoitzaren berezitasunak komentatzen dira, non bizi diren, koloreak... eta honen arabera beraien gida bete beharko dute.

TXORIEN BEHAKETA

-Saio horretan arduradunak diren ikasleak laguntzailearekin jantokiak betetzera joango dira, eta bitartean beste gustiak gida eta katalejoekin gure jantokira joango dira txoriak identifikatzera. ADI! ezin da zaratarik atera, bestela txoriak beldurtu egiten dira eta ezinezkoa izango da ezer ikustea.

AZTARNEN DESMOLDATZEA

ikasleek kontu handiz kartulina eta klip-ak kenduko dituzte. Irakasleak berriz, kutteraren laguntzaz, desmoldatuko ditu.

IAztarna alde batetik eta moldea bestetik daukagunean, bertokoa ondo garbitu (urik gabe) eta bere lekuan gorde.

TXORITOKIEN APAINKETA

Tenperekin txoritokiak margoztuko ditugu. Kolore primarioak (Cian, horia et amagenta) eta zuria eta beltza erabiliz edozein kolore lortu dezakegu.

*Txoritokia kanportik soilik margoztuko dugu.

POLTSEN PRESTAKETA

Ikasle bakoitzak, bai gaurko eta baita aurreko egunetako produktuak poltsan sartuko ditu azken egunean etxera eramateko prest gera daitezen. Zelo pixka batekin poltsak itxi.

EZ ERAMAN POLTSAK, AZKEN EGUNEAN BEGIRALEEK BANATUKO DITUZTE.

TAILERRAREN BILKETA ETA BALORAZIOA

Guztion erantzukizuna izango da tailerra jasotzea, dena dagokion lekuan gordetzea, erabilitako tresnak garbitzea eta txukun uztea. Aulkiak batzea bakoitzaren ardura izango da .Saioaren hasieran izendatu diren mahai bakoitzeko arduradunen betebeharra izango da gela aurkitu dugun bezala gelditzea, garbi eta txukun.

Hiru saioak bukatzean tailerra baloratuko da. Momentu honi dagokion denbora eskaintzea garrantzitsua izango da, lehenengo saioan adostutako asmoak bete diren, adostutakoa aurrera eraman den, zaila egin zaien, gustatu zaien, nola sentitu diren... jakiteko, eta ondoren tailerrean beharrezkoak diren aldaketak egiteko eta irakasleon interbentzio pedagogikoa egokitzeko

